donostiakultura.com



Su artifizialen 50 nazioarteko lehiaketa

50 concurso internacional de fuegos artificiales

Abuztua 10-17 Agosto

Donostia / San Sebastián

Jorge Ignacio Dávila

euskaltel EL DIARIO VASCO 1813 2013 Donostia eraikitzen Construyendo San Sebastián Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián DONOSTIA 2016 SAN SEBASTIAN

gozatueuskaltel.com

# 50 Concurso Internacional de Fuegos Artificiales de San Sebastián, año 2013

## Del 10 al 17 de Agosto *en Alderdi Eder* 22:45

### 10 ZARAGOZANA *(Zaragoza)*

*Obtuvo la primera Concha de Oro del certamen en 1964. Ha participado en 21 de las 50 ediciones del concurso lo que la convierte en la firma que en más ocasiones ha participado en nuestro festival. Ha obtenido también la Concha de Plata en 1968, 1974, 1975, 1978 y 2002 y la mención especial del Jurado a "la mayor cantidad de material disparado" en 1977 (no hubo palmarés pues la climatología adversa impidió que se dispararán todas las colecciones).*

### 11 LUSO PIROTECNIA *(Portugal)*

*Una de las dos firmas portuguesas que han obtenido la Concha de Oro del certamen (1997). Obtuvo también la Concha el Plata el año 1998 y la Concha de Bronce el año 2001. Ha participado en el concurso en cuatro ocasiones.*

### 12 ASTONDOA PIROTEKNIA *(Bizkaia)*

*Participa en el certamen en 1997 y 1999. Firma el primer piromusical que se programa como colofón final a las fiestas de la Semana Grande en 2008 "Dialogo entre la isla Santa Clara y el Monte Urgull". Unica pirotecnia del certamen 2013 dirigida por una mujer.*

### 13 PIROFANTASIA *(Valencia)*

*Participa en el certamen en 7 ocasiones, obteniendo la Concha de Oro en tres de ellas, 1996, 2003 y 2012. También obtiene el Premio del Público en 2012, contando además en esta ocasión con el diseñador pirotécnico más joven que haya tomado parte en nuestro concurso en toda su historia.*

### 14 IP INNOVATIVE Pyrotechnik GmbH *(Alemania)*

*IP Innovative comparte con WECO la representación alemana en el palmarés del festival. Ha participado en nuestro concurso en cuatro ocasiones siendo merecedora de una Concha de Oro (1999) y dos Conchas de Bronce (2000 y 2002). Su equipo de trabajo es un enamorado de nuestra ciudad y de nuestro festival.*

### 15 RICASA *(Valencia)*

*La pirotecnia que mayor número de conchas ha ganado (Oro: 1989, 2001,2002, 2006 – Plata: 1993, 2007 - Bronce: 1997 – Premio Jurado Popular: 2001, 2002, 2003, 2006, 2007 – Premio Euskaltel Jurado Joven: 2006, 2007). El año 2007 consiguió los tres premios más importantes del certamen, la Concha de Oro, el Premio del Jurado Popular y el Premio Euskaltel Jurado Joven. Es la firma que mayor número de galardones ha cosechado en nuestro concurso: 14 en total.*

### 16 FOTI INTERNATIONAL FIREWORKS *(Australia)*

*La firma pirotécnica que ha venido a nuestro festival desde el lugar más lejano: la distancia en línea recta entre Donostia / San Sebastián y Sidney es de 17.498 kilómetros. Ha participado en nuestro concurso en tres ocasiones, obteniendo la Concha de Bronce el año 1998. Foti es la encargada de realizar el espectáculo de fuegos artificiales que recibe al año nuevo en Sidney.*

### 17 PIROTECNIA EUROPLÁ *(Valencia)*

*Constituida en 1977, Europlá es una de las empresas punteras en tecnología en su sector, realizando espectáculos en los que la originalidad y el diseño son su objetivo primordial. Color, ritmo, imaginación y diseño son los elementos que caracterizan a un equipo joven y dinámico que apuesta por la innovación constante. Espectáculos piromusicales coreografiados bajo la tecnología más avanzada y desarrollados para realzar y conmemorar aquellos actos que requieren una comunión perfecta de música y fuego. Europlá ha obtenido el 3er premio en el concurso de piromusicales de Malta en 2013, destacando en su trayectoria la realización de los piromusicales de inicio y cierre de la edición 2012 del Festival Rock & Rio Madrid, además del cierre de las actuaciones de los mexicanos "Maná" y del grupo californiano "Red Hot Chili Peppers". Vienen a San Sebastián con la intención de superarse en la celebración del 50 aniversario de nuestro festival.*

## Medio siglo del Concurso Internacional de Fuegos Artificiales

## *Donostia / San Sebastián, 1964-2013*

*Coincidente casi al día con el doscientos aniversario del incendio y destrucción de nuestra ciudad, celebramos los 50 años del Festival-Concurso de Fuegos Artificiales.*

*Durante este tiempo las empresas pirotécnicas más destacadas del mundo, sin excepción alguna, han ofrecido sus espectáculos de extraordinaria belleza.*

*Sucede cada noche de la Aste Nagusia. Vemos primero una explosión de luces brillantes y un instante después escuchamos el estallido de la carcasa. Le siguen otras, que llenan el espacio de chispas plateadas cayendo desde el cielo entre un ruido ensordecedor. Durante alrededor de veinte minutos se prolonga el espectáculo pirotécnico ante miles de espectadores reunidos alrededor de la bahía de la Concha. Los Fuegos Artificiales son, sin duda, el acontecimiento con mayor fuerza de atracción. Constituyen la base de las celebraciones más señaladas como son la apertura y clausura de las Olimpídas y de los Mundiales de fútbol. Y también en Donostia, donde se calcula en medio millón las personas que a lo largo de la semana asisten a presenciarlos.*

*La pirotecnia es, a la vez, ciencia y arte. La ciencia de encerrar energía bajo una débil envoltura y liberarla luego, rápidamente, con gran potencia de deflagración o combustión. Y el arte para obtener que estos efectos sonoros, propulsivos y luminosos se realicen con armonía y esplendor. Nos quedan en la memoria las prodigiosas carcasas napolitanas de múltiples efectos de Parente o Panzera, las candelas romanas del francés Ruggieri y nada igualó la perfección de las enormes carcasas esféricas que el japonés Marutamaya lanzó en 1973. Pero el gran espectáculo lo dio la firma italo-americana Garden State Fireworks, que en 1991 llenó el cielo de la Bahía, durante treinta y cinco minutos, con un material innovador de extraordinaria calidad.*

*El festival-concurso donostiarra, en su celebración ininterrumpida, es el más antiguo de Europa. Y también el más prestigiado, en opinión de los profesionales del sector. En él se han basado otras ciudades para organizar los suyos. Citamos como ejemplo a Canadá, la meca de los festivales pirotécnicos. Arrancó primero Montreal, en 1985, montado a imagen y semejanza de Donostia y con nuestro asesoramiento, al que siguieron los de Toronto y Vancouver.*

*Los fuegos artificiales están profundamente enraizados en la historia de San Sebastián, ya desde el siglo XVIII, con la tradición de `iluminar´ las fachadas de edificios públicos. En 1856 se ofrece por vez primera un espectáculo pirotécnico en la noche del 15 de agosto y unos años más tarde, con la creación de la Semana Grande, los fuegos artificiales tomarán carta de naturaleza en la ciudad.*

*Desde 1964, año de su inicio, se han ido produciendo cambios importantes, tanto en materia de seguridad como en avances técnicos de todo orden. Donostia los ha incorporado, con la certidumbre de que seguirá siendo el festival líder europeo. Lo avala la tradición, la seriedad organizativa y la belleza del escenario con una lámina de agua interpuesta al espectador, que multiplica los efectos de la pirotecnia.*

**Rafael Aguirre**

*Programador del Festival Internacional de Fuegos Artificiales de San Sebastián entre 1965 y 1997*

## Medidas de seguridad

***Para garantía de seguridad siga estrictamente las siguientes normas:***



- *La zona donde se coloca el material pirotécnico permanece acotada durante toda la semana, estando prohibido el acceso a la misma a personal no autorizado. Respete las instrucciones del personal de seguridad y no sobrepase el perímetro de seguridad acotado con vallas y/o cinta.*
- *Cada noche y a partir de las 22:15h se desaloja al público de una amplia zona periférica al lugar de disparo de las colecciones estando prohibido el acceso a la misma. Los vecinos de dicha área deberán acceder a sus domicilios antes de las 22:30h.*
- *Los usuarios de los parkings afectados deberán estacionar sus vehículos en el parking antes de las 22:00h, no pudiendo retirarlos antes de las 23:30h.*
- *Se recomienda cerrar ventanas y balcones en las viviendas y locales próximos, así como retirar cualquier material combustible (ropa, toldos, hamacas...)*
- *Durante el disparo de los fuegos artificiales es frecuente, que caigan restos de ceniza. En caso de introducirse en los ojos, conviene enjuagar con agua abundante y no restregarse.*
- *Se comunica que no se podrá presenciar el disparo de Fuegos Artificiales desde las terrazas, balcones, ó ventanas de los edificios circundantes a la zona de lanzamiento.*
- *Colabore aparcando su vehículo fuera de la Zona de Seguridad, puede que le caiga algún resto.*
- *Cada noche, una vez terminada la colección de fuegos los servicios municipales correspondientes rastrearán durante 10 minutos la zona amplia de acotado en busca de restos pirotécnicos. Una vez permitido el acceso de público, si encontrara algún material sospechoso de peligro no lo toque, ni lo empuje con el pie, puede explosionar. En cualquier caso, nunca lo manipule, aléjese y alerte de su presencia a otras personas. Avise inmediatamente al personal de seguridad o al agente de autoridad más próximo.*
- *Si es responsable de un menor: en caso de extravío, póngase en contacto con cualquier agente municipal. Reiteren la prohibición de tocar o manipular cualquier resto de material pirotécnico a los menores, pueden causar daños irreversibles.*
- *Durante el espectáculo, en caso de sentirse mal (lipotimias, mareos, etc.) o sufrir una herida, acuda al personal de seguridad o sanitario que se encuentra en las inmediaciones de la Zona de Seguridad.*

***En el mar:** los patrones de embarcaciones que salgan a la bahía para presenciar los fuegos deberán seguir estrictamente las instrucciones de la autoridad competente.*

## Plano




### *Leyenda*

- Ambulancia
- Ambulancia medicalizada
- Bomberos
- Centro asistencial (Primera evacuación)
- Cisterna
- Embarcación
- PMA
- Servicio de Seguridad
- Puntos de corte
- Zona de Lanzamiento

App Euskaltel 2013 Donostia Aste Nagusia

donostiakultura.com



Su artifizialen
50 nazioarteko
lehiaketa
concurso
internacional
de fuegos artificiales
Abuztua 10-17 Agosto
Donostia / San Sebastián

Jorge Ignacio Dávila

euskaltel
gozatueuskaltel.com
EL DIARIO VASCO
1813 2013 Donostia eraikitzen Construyendo San Sebastián
Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián
DONOSTIA 2016 SAN SEBASTIAN

# Donostiako Su Artifizialen 50. Nazioarteko Lehiaketa, 2013. urtea

## Abuztuak 10-etik 17-ra *Alderdi Ederren* 22:45

### 10 ZARAGOZANA *(Zaragoza)*

*Lehiaketako lehen Urrezko Maskorra irabazi zuen 1964an. Lehiaketaren 50 edizioetako 21etan parte hartu du; alegia, gure jaialdian gehien parte hartu duen enpresa da. Zilarrezko Maskorra ere irabazi izan du, 1968, 1974, 1975, 1978 eta 2002ko edizioetan, eta Epaimahaiaren aipamen berezia 1977an "material gehien jaurtitzeagatik" (ez zen izan sarituen zerrendarik, eguraldi txarrak galarazi egin baitzien enpresa batzuei jaurtitzea).*

### 11 LUSO PIROTECNIA *(Portugal)*

*Lehiaketako Urrezko Maskorra lortu duten bi enpresa portugesetako bat (1997an). Zilarrezko Maskorra ere irabazi zuen, 1998an, eta Brontzezko Maskorra 2001ean. Lau aldiz parte hartu du lehiaketan.*

### 12 ASTONDOA PIROTEKNIA *(Bizkaia)*

*1997 eta 1999ko lehiaketetan hartu du parte. Berak egin zuen programaturiko lehen piromusikala, 2008ko Aste Nagusiko jaien amaiera gisa: "Elkarrizketa Santa Klarako uhartearen eta Urgull mendiaren artean". 2013an, emakume batek zuzentzen duen piroteknia bakarra da.*

### 13 PIROFANTASIA *(Valentzia)*

*Zazpi aldiz parte hartu du lehiaketan, eta hirutan irabazi du Urrezko Maskorra: 1966, 2003 eta 2012an.2012an, Ikusleen Saria irabazi zuen, eta urte horretan, gainera, inoiz gure lehiaketan parte hartu duen diseinugile piroteknikorik gazteena izan zuen.*

### 14 IP INNOVATIVE Pyrotechnik GmbH *(Alemania)*

*WECOrekin batera, Alemaniaren ordezkaria da IP Innovative jaialdiko sarien historian. Lau aldiz parte hartu du gure lehiaketan, eta Urrezko Maskor bat (1999) eta Brontzezko Maskor bi (2000 eta 2002) irabazi ditu. Lantaldea maiteminduta dago gure hiriaz eta gure jaialdiaz.*

### 15 RICASA *(Valentzia)*

*Maskor gehien irabazi duen piroteknia (Urrezkoa: 1989, 2001, 2002, 2006 – Zilarrezkoa: 1993, 2007 – Brontzezkoa: 1997 – Herri Epaimahaiaren Saria: 2001, 2002, 2003, 2006, 2007 – Euskaltel Epaimahai Gaztea Saria: 2006, 2007). 2007an, lehiaketako hiru sari nagusiak irabazi zituen: Urrezko Maskorra, Herri Epaimahaiaren Saria eta Euskaltel Epaimahai Gaztearen Saria. Gure lehiaketan guztira sari gehien lortu dituen enpresa da: hamalau.*

### 16 FOTI INTERNATIONAL FIREWORKS *(Australia)*

*Gure jaialdira urrutienetik etorritako enpresa piroteknikoa: Donostia eta Sidneyren arteko distantzia, zuzenean, 17.498 kilometrokoa da. Lau aldiz hartu du parte gure lehiaketan, eta 1998an Brontzezko Maskorra irabazi zuen. Foti da Sidneyn urte berriari ongi etorria egiten dion su festen ikuskizunaz arduratzen den enpresa.*

### 17 PIROTECNIA EUROPLÁ *(Valentzia)*

*1977an sortu zen Europlá, eta puntako enpresa da sektorean teknologiari dagokionez; ikuskizunetan, originaltasuna eta diseinua ditu helburu nagusi.*
*Kolorea, erritmoa, irudimena eta diseinua dira talde gazte eta dinamiko honen ezaugarriak, etengabeko berrikuntzaren alde baitago. Ikuskizun piromusikalok teknologiarik aurreratuenaz daude koreografiatuta, eta musika eta sua inolako akatsik gabe bat eginik egotea eskatzen duten ekintzak nabarmentzeko eta ospatzeko garatu dituzte. Europlák hirugarren saria lortu du 2013an Maltako piromusikalen lehiaketan; bere ibilbidean, nabarmentzekoak ditu Madrileko Rock & Río Musikaldiaren 2012ko edizioari hasiera eta amaiera emateko egindako piromusikalak, eta Maná musika-talde mexikarraren eta Red Hot Chili Peppers talde kaliforniarraren emanaldietako amaierakoak. Beren onena emateko asmoz datoz Donostiara, gure jaialdiaren 50. urteurrenean.*

## Su Artifizialen Nazioarteko lehiaketak mende erdi

## *Donostia / San Sebastián, 1964-2013*

50 *Ia-ia Donostia erre eta suntsitu zuteneko berrehungarren urteurrenarekin batera, Su Festen Jaialdi-Lehiaketak mende erdia betetzen duela ospatzen dugu aurten, urtez urte etenik gabe betetako mende erdia. Denbora horretan, munduko enpresa piroteknikorik nabarmenenek, salbuespenik gabe, ikuskizun ezin ederragoak eskaini dizkigute.*

*Halaxe gertatu ohi da Aste Nagusian gauero. Argirik distiratsuenak lehertzen ikusten ditugu lehenik, eta ondotik laster entzuten dugu karkasaren eztanda. Gero, beste batzuk, gaua txinparta zilarrezkoz betetzen, zerutik erotzen direlarik zaratots burrunbatsuan. Hogei minutu-edo irauten du ikuskizun piroteknikoak Kontxako badiaren inguru osoan bildutako milaka ikusleen aurrean. Su Festak, ezbairik gabe, erakarmen handieneko gertaera dira. Ospakizunik sona handikoenen oinarri izan ohi dira; esate baterako, Olinpiaden hasierako eta amaierako ekitaldietan eta Futboleko Mundu Txapelketetan. Baita Donostian ere, non kalkulatzen baita milioi erdi lagun inguru izaten direla aste osoko ikusleak.*

*Piroteknia zientzia eta artea da aldi berean. Zientzia, energia estalki ahul batean bildu ondoren askatu egiten delako, bizkor bai bizkor, zapart egiteko edo erretzeko indar handiz. Eta artea, soinu-, propultsio- eta argi-efektu horiek guztiak harmoniaz eta edertasunez egin daitezen lortzeko. Gogoan geratu zaizkigu Parente edo Panzeraren karkasa napolitar harrigarri, efektu ugarikoak; Ruggieri frantsesaren erromatar kandelak; eta ezerk ez zuen berdindu Marutamaya japoniarrak 1973an jaurtitako karkasa esferiko erraldoien perfekzioa. Baina ikuskizunik ikusgarriena Garden State Fireworks enpresa italo-amerikarrak eman zuen, 1991n, material berritzaile eta kalitate paregabekoaz bete baitzuen badiako zerua hogeita hamabost minutuz.*

*Donostiako jaialdi-lehiaketa, etenik gabeko ospakizuna, Europako zaharrena da. Bai eta izen handikoena ere, sektoreko profesionalen iritziz. Bera izan dute eredu beste hiri batzuek beren su-festak antolatzeko. Adibideak ematen hasita, aipa dezagun Kanada, jaialdi piroteknikoen meka. Montreal hasi zen lehenik, 1985an, eta Donostiaren irudira eta eredura egin zuen, gure aholkuei jarraituz; ondoren, Toronto eta Vancouver etorri ziren.*

*Su-festak sakon sustraituta daude Donostiaren historian; XVIII. mendetik jadanik, ordukoa baita eraikin publikoen aurrealdeak "argitzeko" tradizioa. 1856an eskaini zen lehen aldiz ikuskizun pirotekniko bat, abuztuaren 15eko gauean, eta handik urte batzuetara, Aste Nagusia sortu zenean, su-festak bertako ikur bihurtzen hasi ziren.*

*1964tik, urte horretan hasi baitzen jaialdi-lehiaketa, aldaketa handiak izan dira, bai segurtasunaren aldetik eta bai era guztietako aurrerapen teknikoen aldetik. Donostiak aldaketa horiek guztiak jaso ditu, betiere Europako jaialdi liderra izaten jarraituko duelako ziurtasunaz. Horretan, lagun ditu tradizioa, antolamendu-seriotasuna eta agertoki paregabea, ikusleek ur-pantaila eder bat dutelarik aurrean, pirotekniaren efektuak biderkatzeko.*

**Rafael Aguirre**
*Donostiako Su Artifizialen Nazioarteko*
*Lehiaketaren programatzailea 1965 eta 1997 artean*

## Segurtasun neurriak

***Segurtasuna bermatu ahal izateko, bete itzazu hurrengo arauak:***

- *Material piroteknikoa kokatzen den aldea itxita egongo da aste osoan. Bertan sartzea debekatua dago baimenduta ez dagoen edonorentzat. Errespetatu segurtasun arduradunak emandako irizpideak eta ez gainditu hesiekin edo zintarekin itxita dagoen eremua.*
- *Gauero, 22:15etik aurrera, jendeari irtenarazi egingo zaio jaurtitze inguruneetatik, eta bertara sartzea debekatua egongo da. Eremu horretako bizilagunek gaueko 22:30ak baino lehenago etxeratu beharko dute.*
- *Aparkalekuetako erabiltzaileek 22:00ak baino lehenago utzi beharko dituzte ibilgailuak, eta ezingo dituzte atera 23:30ak baino lehenago.*
- *Inguruan dauden etxebizitza eta lokalen leiho eta balkoiak ixtea eta elementu errekorrak kentzea (arropa, toldoak, hamakak...) gomendatzen da.*
- *Su artifizialak jaurtitzean, maiz erortzen dira errauts hondakinak. Begietan sartuz gero, ur askorekin garbitzea komeni da, eta ez igurztea.*
- *Jakinarazten dugu su artifizialen jaurtiketa ezingo dela ikusi jaurtiketa-zonaren inguruko eraikinetako terraza, balkoi edo leihoetatik.*
- *Lagun gaitzazu eta aparka ezazu zure ibilgailua segurtasun eremutik kanpo, elementuren bat erori dakioke eta.*
- *Gauero, ikuskizuna amaitutakoan, udal zerbitzuek itxitako inguruneak miatuko dituzte, hondakin piroteknikoen bila, 10 minutuz Jendea sartu ondoren, material susmagarririk aurkitzen baduzu, ez ukitu, ez bultza hankarekin, eztanda egin dezake eta. Ez eskutan erabili, aldendu eta jendeari arriskuaren berri eman. Segituan bilatutakoaren berri eman gertueneko segurtasun arduradunei edo agintariari.*
- *Adin txikiko arduraduna bazara: haurra galduko balitzaizu jakinarazi iezaiozu udaltzain bati. Behin eta berriro debekatu iezaiozu haurrari material piroteknikorik ukitzen, kalte ondorio larriak sor ditzake eta.*
- *Ikuskizuna bitartean, gaixotu (lipotimiak, zorabioak eta abar) edo zauriren bat izan ezkero, segurtasun arduradun batengana edo inguruan aurkitzen diren osasun langileengana hurbildu zaitez.*

***Itsasoan:*** *suak ikusteko badiara irteten diren ontzi patroiek dagokion agintarien instrukzioak bete beharko dituzte zehatz-mehatz.*



## Planoa




### *Azalpena*

- Anbulantzia
- Anbulantzia medikalizatua
- Suhiltzaileak
- Laguntza-zentroa (Lehen ebakuazioa)
- Zisterna
- Txalupa
- PMA
- Segurtasun Zerbitzua
- Mozketa guneak
- Jaurtiketa Eremua